

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Zenbaki arrazionalak, irrazionalak eta errealak erlazionatu, euren arteko eragiketak (berreketak) eta propietateak erabili informazioa biltzeko, aldatzeko eta trukatzeko, eta eguneroko bizitzako problemak eta arlo zientifikoko problemak ebazteko.</p>	<p>1.1. <i>Kalkulagailua erabiliz edozein motatako zenbakizko adierazpenen arteko eragiketak burutzea.</i></p> <p>1.2. <i>Berreketen propietateak ezagutuz eta adierazpen konplexuak sinplifikatzea.</i></p> <p>1.3. <i>Idazkera zientifikoko arauak aplikatzea eta hauen eragiketak burutzea eta aplikatzea eguneroko bizitzako problemetan.</i></p>
<p>2. Funtzio esponenzialaren eta logaritmikoaren ezaugarriak deskribatu eta adierazpen moldeak eraldatu, berreketa eragiketarik abiatuta, eta funtzio horiekin eragiketak egin.</p>	<p>2.1. <i>Berreketarekin eta funtzio esponenzialarekin eta logaritmikoarekin erlazionatutako adierazpenekin eragiketak egitea eta ekuazioak ebaztea.</i></p> <p>2.2. <i>Funtzio esponenzialaren eta logaritmikoaren adierazpen-moldeak (hitzezkoa, aljebraikoa, grafikoa eta tabularra) erlazionatzea eta eraldatzea, erlazioak justifikatuz, eraikuntzarako GeoGebra aplikazioa baliatuz eta hizkuntza eta terminologia matematikoa zainduz.</i></p>
<p>3. Funtzio esponenzialarekin eta logaritmikoarekin erlazionatutako modelo matematikoak baliatu eta informazio berria ondorioztatu hazkunde eta txikitze esponenzialarekin zerikusia duten fenomenoak argitzeko eta ekonomiarekin lotutako problemak ebazteko.</p>	<p>3.1. <i>Hazkunde eta txikitze esponenzialari buruzko informazioa lortzeko urratsak planifikatzea eta modeloa sortzea eta eraldatzea, eragiketarik egitea eta emaitzari errealitatean duen zentzua ematea eta hizkuntza eta sinbologia matematikoa erabiliz komunikatzea.</i></p> <p>3.2. <i>Ekonomiari buruzko informazioa lortzeko urratsak planifikatzea eta modeloa sortzea eta eraldatzea, eragiketarik egitea eta emaitzari errealitatean duen zentzua ematea eta hizkuntza eta sinbologia matematikoa erabiliz komunikatzea.</i></p>